

## PRENTSA-OHARRA

# Teknikerrek ondesteko minbizi kasuetako kirurgia errazten duen errektoskopia berritzailea garatu du

- *Zentro teknologikoak gailu berria diseinatzen eta fabrikatzen lagundu du; argi-errektoskopia graduatua da, kirurgialariari ondesteko tumorea kentzen laguntzeko*
- *Proiektua La Paz Unibertsitate Ospitaleko Ikerketa Biomedikorako fundazioaren laguntzarekin garatu da*

**[Eibar, 2020ko ekainak 2]** - Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kide den **Tekniker** zentro teknologikoak, Madrilgo **La Paz Unibertsitate Ospitaleko Ikerketa Biomedikorako fundazioaren** laguntzarekin, errektoskopia berriaren prototipoa diseinatu du. Bere diseinuari esker, gailu berriak kirurgialariaren lana errazten du ondesteko minbizi kasuetan.

Horrelako gailu medikuek, oro har, argia dute aurrean, medikuak ondestearen barrualdea ikusi ahal izateko. Prototipo berriak, horrez gain, argi-iturri erradiala dauka, beraz, tresnak erabilera osagarria izango du: ondesteko tumorea kentzerakoan, ebaketa non egin erabakitzen lagunduko dio kirurgialariari.

Mota horretako minbizia tratatzeko kirurgian, tumorea duen ondestearen zatia kentzen da, eta sortutako bi muturrak lotzen dira. Ebaketa egiterakoan, segurtasun-tartea utzi behar da minbiziaren eta ehun osasuntsuaren artean, eta tarte hori 1 cm-ra murriztea lortu da. Horrek abantaila esanguratsuak ditu pazientearentzat, baina ebaketa zehaztasun handiz egin behar da, tumorea barreiatzeko arriskua saihesteko eta segurtasun onkologikoa bermatzeko.

Teknikerrek argi-errektoskopia berria garatzen lagundu du, kirurgialariaren beharrei erantzuteko xedearekin. Izan ere, gailuak argiz laguntzen dio kirurgialariari ebaketaren marjinen luzera erabakitzen, hau da, tumorearen eta ehun osasuntsuaren arteko zein puntutan egin ebaketa, segurtasun-tarte egokia utziz.

Ondestea organo hutsa eta zeharrargia da, eta propietate hori erabil daiteke kirurgialariari barrualdeko leku jakin bat adierazteko. Berak ondestea kanpotik ikusten du, eta laguntzaileak, errektoskopiaoren bidez, barrualdea ikusten du.

## Gailu gardena

Teknikerrek, zehaztasun handiko ekipamenduen diseinuan, garapenean eta fabrikazioan adituak, errektoskopiaoren kontzeptu berriaren eskakizun medikoak bildu ditu, eta horietatik abiatuta prototipoa diseinatu eta fabrikatu du. Bateragarritasun mediko eta mekanikoko baldintzak betetzen ditu, eta gardena da, ezinbestekoa dena ondo ikusteko eta argia pasatzen uzteko.

Zentroa arduratu da errektoskopiaoren ingurutzaila garatzeaz: pazientearen gorputzean sartzen den pieza da, barrura erregela eta argidun gailua sartzea ahalbidetzen duena.

Teknikerrek produktuaren ingeniaritzan, fabrikazio aurreratuan eta osasunaren sektoreko ekipamenduetan duen espezializazio teknologiko zabala aplikatu du errektoskopiaoren prototipo funtzionala diseinatu eta garatzeko. Orain klinika aurreko probak egiten ari dira animaliekin, eta gailuak aurrerapen esanguratsua ekarriko du ondesteko tumorea kentzeko kirurgia-operazioetara.

## Teknikeri buruz

Teknikerrek 40 urte inguruko esperientzia du teknologia aplikatuaren ikerkuntzan eta hura enpresetara transferitzen, eta, denbora horren ostean, espezializazio-maila altua eskuratu du lau arlo handitan (Fabrikazio Aurreratuan, Gainazalen Ingeniaritzan, Produktu-ingeniaritzan eta IKTetan), eta horrek abangoardiako teknologia hori bezeroen premien zerbitzura jartzea ahalbidetzen dio. Zentro teknologikoa Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kidea da.

### Informazio gehiago:

**GUK** ► Javier Urtasun  
urtasun@guk.es | Tel. 637 273 728